

# Lantz eta Ultzamako mugetan edestiaurreko oroitarri berriki aurkituak

FRANCISCO ONDARRA

O rain ezagutzera ematen ditugun edestiaurreko oroitarriak, bat ez beste guztiak, 1988. urteko udan aurkituak dira eta, lehengo salbuespen berarekin, *Iruñea* eta *Baiona* arteko bidearen ondoan daude. Gaurregun ezagunagoa da *Santio Bidea* bezala, hortik joaten bait ziren erromesak *Galiziako Santiora*, eta horren aldamenean bait dira bi ermita. Bat *Ermitako-Lepoan* zegoen, 1986. urteko abenduaren 6.ean guztiz desegina izan zena. Bestea *Aratxuri* erreka bazterrean altxatzen da eta *Ama Birjinaren* ermita da, honekin batera izan zirela komentu eta ospitale bat erromesen laguntzarako.

*Ermitako-Lepoan*, galtzara ondoan, badago harribakoitz, harrespil eta tumulurik. *Aratxuri* errekan dagoen zubia igaro ondoren, *Lantz* alderantz doan pistak ezker-eskuin ditu kondaira aurreko monumentuak, eta ez dugu ahaztu behar pista lehengo bide zaharretik doala. Lehenbiziko trikuharriak *Tellegi* deitu zelaian aurkitzen dira eta *Loiketa* izena eman zitzaizen, *Loiketa* mendiaren iparralde-mendebaleko maldan landatuak daudelako edo zeudelako. Horien ezkerretik aldapa gora *Lantz-Ultzamako* mugetaraino heltzen den pistatik hurbil ageri dira aurkitu berrietako lau: bide horren ezkerretik hiru, eta laugarrena mugarrietara ailegatzean, guztiak *Loiketa* izenarekin bataiatu ditugunak.

Aldapa behera hasten garela eta *Lantz-Ultzamako* muga jarraitzen dugula, ikusten ditugu, bide zaharraren eskuin aldetik orain, *Bixurdiñeta* eta *Xafran* deitzen ditugun hiru trikuharri eta tumulu bat. *Sugesti* izena ematen diogun fenomenua, berriz, bide honetatik ez dago oso gertu. Alderantziz, *Loiketa* izeneko tumulua, zenbait urte direla argitaratua, bidea igarotzen zela uste dugun lekuan dago eraikia. Baina bidetik ez hurbil, lehendik ezagunak diren *Harriurdiñeta* trikuharria eta *Lantz* izena daraman tumulua, hura *Lantzko* oihanetan estalia eta bigarrena *Arraitz Bentak* esaten zaienen aurrean, horien ekialdetik ikus daitekeen 789 metrodu gainaren ondoan –*Instituto Geográfico y Catastral* delakoaren mapan, 1:50.000 neurrikoan–.

*Iruetako-Xelai* (842,10 m.) igaro eta gure ezkerrean uzten dugu *Ertxeta* gaintxoa. Guk *Karlisten Trintxera* esan genion honi, baina egiazko izena orain ipini duguna da, *karlisten trintxera* izeneko fenomenuren bat hor dagoelarik. *Lantz* alderantz segitzen dugula, laster izango dugu begien aurrean *Txorrostarriko-Erreka* (hola goian aipatutako mapan), erromatarren garaietako burdin meatzeak aurkitzen direla erreka zulo horretan.

Beraz, benetan bide zahar bat dugu hemen. Hemendik ibiltzen ziren

gure aspaldiko asabak; hemendik eramango zituzten erromatarrek euskaldunen aberastasunak; hortik egiten zituzten erromesek beren joan-etorriak; hortik zituzten *Iruñea-Nafarroa* eta *Baiona-Lapurdik* beren harremanak. Eta hemendik joan ziren ihesi *Iruñeko* azken erregearen gudaosteak; hemendik igaro *Napoleonenak* eta karlistenak.

Gure lan honetan ematen ditugun koordinatuetan luze edo lonjitate *Madrilgo* meridianoari dagokiona da, ekialdekoa. Bestalde, koordinatuak aurkitzeko *Instituto Geográfico y Catastral*-ek egindako mapak erabiltzen ditugu, 1:50.000 neurrikoak. Gailur, lepo, etabarren goia *Nafarroako Gobernua*ren mapetatik hartzen da, 1:5.000 neurridunetatik, zehetasun hori ekartzen dutenean. Oroitarria norantz begira dagoen adierazteko, ipar magnetikoa hartzen dugu oinarritzat.

Bukatzeko, esan dezagun zerbait argitara ematen ditugun monumentuei buruz. Baiezta dezakegu horietatik *Loiketa VIII* bakarrik izan dela leku zelaian eraikia; besteak malda txikietan edo/eta txiki-txikietan. Aipa ditzagun ere horien inguruetan aurkitzen diren errotharri, zorrotzarri eta kisulabea: errotharriak *Loiketa V*, *VI* eta *VII* trikuharrien alderdian eta *Bixurdiñeta II* izenekoaren ganbaran; zorrotzarria, *Loiketa VI* ondoan; eta kisulabe edo karobia, *Iruetako-Xelai* lepotik egoalde-mendebalerantz, 815 bat m. goi itsasmaitatik. Kalabearen aurrez-aurre tumulu bat izan daiteke, eta beste bat *Iruetako-Xelai*-tik *Xafran*-era doan bidean, ca. 850 m. goi.

## LOIKETA V: Trikuharria

*Non dagoen:* *Ultzama* ibarrean, bertako herririk hurbilena *Arraitz* delarik. *Belateko Ama Birjinaren* ondoko zubia igaro, horrela *Aratxuri* erreka atzean uzten dugula, eta jarrai *Lantz* alderantz doan pistatik. Honen ezkerretik 65 bat metrotara: bagadi ederra eta monumentutik 65 metrotara harrikara bat. *Loiketa I*-tik 10 minutu honuntz; *Loiketa IV*-tik 160 m., 70 graduatarantz. Iratzedi txiki bat ondoan, tumuluaren puska bat estaltzen duela; beste bat ipar alderantz, tumulutik 10 metrotara. Tumuluaren gainean goroldio, iratze, ilar, orbela eta masustarik ez da falta. *Giltzurri-Harrie* (943 m.), 310 graduatarantz; *Ultzama Benta*, 280°.

Trikuharri honen eta urrengo bien inguruetan artzai txabola eroriak, eta errotharri ta zorrotzarririk ere bai.

*Goi:* 905 bat metro itsasmaitatik.

*Koordinatuak:* Lonjitate 2° 04' 07'', latitutea 43° 01' 55'', *Sunbilla* izeneko mapan, 90. zenbakidunean.

*Nolakoa den* (1. irudia): Tumulu baten erdian 6 harri edo lauza. Esan daiteke tumuluko harriek ganbara estaltzen zutela lehen. Tumulua harrizkoa da, eta 9 bat metro diametruan ta metro 1 goi maximum. Trikuharriaren ganbara izango zen 1,20 metro goi maximum, 2,30 bat luze eta 0,80 bat zabal. Ganbara egiten zuten harrietatik sei ageri dira orain, neurri hauekin:

1. (Egoalde-ekialdekoa) 1,20 goi maximum, 2,90 luze maximum eta 0,10/0,15 lodi medium. Etzanik 4. lauzaren gainean.

2. (Egoalde-mendebalekoa) 0,50 goi maximum, 0,80 luze eta 0,20 lodi. Pixka bat barrurantz makurturik. Sarrerako lauza izan daiteke.

3. (Ipar-mendebalekoa) 0,85 goi maximum, 1,37 luze maximum eta 0,08/0,10 lodi medium. Zutienik dagoena da, baina hala ere pixka bat barrurantz makurturik.

4. (Ipar-mendebalekoa) 0,85 goi maximum, ageri den puska, 1,35 luze maximum eta 0,10 lodi medium. Etzanik 1. lauzaren gainean.

5. (Barruko zolan, luze-luze) 0,10/0,15 lodi izan daiteke, besterik ezin dugula esan. *Maluquer de Motes-ek Aznabasterra* bataiatzen duen trikuharrian ere harlauza omen dago barneko zolan.

6. (Estalki puska edo) 1,10 luze maximum, 0,62 zabal maximum eta 0,10 lodi medium. Ez dago harrietan sarturik, baizik eta horien gainean ia zutik kokaturik. Erraz mugi daiteke 1. eta 3. lauzetatik, horietan dagoela etzanik.

*Norantz begira*: 55 ala 235 graduetarantz.

*Harri mota*: Bertako hareazkoak dira harri guztiak.

*Noiz aurkitua*: 1988. urtean, abuztuaren 10. egunean, *Loiketa VI* eta *Loiketa VII*, bi egun aurretik lehenbizikoz ikusiak, berriz ikustera gindoa-zela. Ez dugu indusketarik ezagutzen, baina urre bilatzaileek bisitatua izana da. Datuak hartu genituen aurkitu genuen egunean; baina *Giltzurri-Harrie* eta *Ultzama Bentari* dagozkienak, azaroaren 18. eta 20.etan.

*Bibliografia*: Ez dugu ezagutzen.

## LOIKETA VI: Trikuharria

*Non dagoen*: *Ultzama* ibarrean, bertako herririk hurbilena *Arraitz* dela. *Loiketa VI* trikuharritik 100 bat metrotara, egoalde-mendebalerantz. *Lantz* alderantz doan pistatik 25 m.tara tumuluaren hasiera, pista horretatik beste bat abiatzen dela, oroitari ondo-ondoraino ailegatzeko. Bagadi ederra hor guztian, eta goian aipatu dugun harrikara 15 m.tara. Bi bago tumulu gainean, eta orbela ta goroldioa ugari. Artzai txabola eroriak eta errotari ta zorrotariak, lehen esan dugun bezala.

*Ultzama Benta*, 290 graduetarantz; 315°, *Giltzurri-Harrie* (943 m.).

*Goi*: 895 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak*: Lonjitatea 2° 04' 06", latitutea 43° 01' 52", *Sunbilla* izeneko mapan, 90. zenbakidunean.

*Nolakoa den* (2. irudia): Tumulu baten erdian, bi lauza edo harri. Tumulu harrizkoa da, baina harriak ez daude trinko, eta 0,35 bat goi da, 6 bat metrodu diametrua duela. Erdiko zuloak 2 bat metroko diametrua du, 0,30 bat sakon maximum delarik. Bi lauza daude zuloan, honelakoak:

1. Ageri den zatia 1,00 goi da, 0,55 luze lur azalaren ondoan eta 0,15 lodi medium. Erdi zutik erdi barrurantz eta albo batera makurturik.

2. Luze maximum 1,80, zabal maximum 0,75 eta lodi medium 0,25 (0,25/0,23/0,30). Beste lauzaren ondoan dago, eta luze-luze.

*Norantz begira*: 70 graduetarantz begira egon zitekeen.

*Harri mota*: Bertako hareazkoak dira harri guztiak.

*Noiz aurkitua*: 1988. urtean, abuztuaren 8.ean. Datuak hartu abuztuaren 13.ean gehienak; *Giltzurri-Harrie* eta *Ultzama Bentari* dagozkienak, berriz, azaroaren 18. eta 20.etan. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia*: Ez dugu ezagutzen.

## LOIKETA VII: Trikuharria

*Non dagoen:* Aurreko biak bezala. *Loiketa VI* trikuharritik 30 bat metrotara, 130 graduatarantz eta 5 bat metro goitiago itsasmailatik. Bagadi ederra, baina bagorik ez tulumuan. Goroldioa eta orbela ugari; buruko axal eta ihi bakan batzuk. Pixka bat gorago bi bat txabola izan dira, eta goitiago errotarri bat dago, Erdiko zuloa hasirik.

*Goi:* 900 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak:* Konj. 2° 04' 06'', lat. 43° 01' 52'', *Sunbilla* deitu mapan.

*Nolakoa den* (3. irudia): 7 bat metroko diametroa duen eta 0,35 goi den tumulu batean 4 lauza edo harri ageri dira. Harrizko tumulua, baina harriak ez daude trinko. Erdiko zuloa ezin esan nolakoa zen, eta bertan lauza hauek:

1. (Ekialde eta iparralde-ekialdekoa) 0,50 goi, 1,25 luze eta 0,10 lodi medium. Barrurantz oso makurturik, ia bigarren lauza ukitzen duela.

2. (Iparralde eta iparralde-mendebalekoa) 0,40 goi maximum, 0,55 luze maximum eta 0,05/0,07 lodi medium. «In situ» dago, zut-zutik.

3. (Mendebal eta egoalde-mendebalekoa) 1,40 luze maximum, 0,90 zabal maximum eta 0,12/0,20 lodi. Tumulu gainean luze-luze.

4. (Iparralde eta iparralde-mendebalekoa) 1,10 luze maximum, 0,35 zabal maximum eta 0,15 lodi medium. Luze-luze tumulu gainean.

*Norantz begira:* 160 ala 340 graduatarantz.

*Harri mota:* Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua:* Aurrekoa bezala, 1988. urtean, abuztuaren 8.ean. Egia esan, hau ikusi genuen bestea baino lehenago, maldan beheara bait gentozen. Datuak hartu abuztuaren 10. eta 13. egunetan, eta azaroaren 20.ean. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia:* Ez dugu ezagutzen.

## LOIKETA VIII: Trikuharria

*Non dagoen:* *Lantz* hiriko mendietan. *Belateko Ama Birjina*-tik *Lantz* alderantz doan pista *Lantz* eta *Ultzama* arteko mugarrietara ailegatzan denean. Zelai bat dago hor, bagoz betea. *Loiketa* tontorrerantz hasten bagara, maldan gora, lehenbiziko mugarria aurkituko dugu 80 bat metrotara, ekialde eta iparralde-ekialderantz. *Lantz* hiriko lurak 30 bat metrotara hasten dira, iparraldetik. *Santio* bidea markatzeko, berriki (1988. urteko azaroan) ipini dituzten plastikoak 6 bat metrotara daude trikuharriaren tumulutik, ekialdetik. Alderdi honetan ugari sortzen dira ihi meheak; eta tumulu barruan orbela frango, iratzeak puska bat estaltzen, ez dela falta bago, buruko axal eta masustarik. Erdiko zuloan ez dago bagorik.

*Goi:* 916 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak:* Lonj. 2° 04' 05'', lat. 43° 01' 26'', *Sunbilla* deitu mapan.

*Nolakoa den* (4. irudia): 12 bat metroko diametroa duen eta 0,70 goi maximum den tumulu batean hiru lauza edo harri ageri dira etzanik. Horren erdian zulo bat neurri hauekin: 6 m. maximum iparralde-ekialdetik egoalde-mendebalerantz, eta 3 m. maximum iparralde-mendebaletik egoalde-ekialderantz, 0,30 bat sakon delarik. Tumulu eta zuloan lauza hauek:

1. 2,85 m. luze maximum, 1,40 zabal maximum, ageri den zatia, eta 0,20/0,25 lodi medium. Luze-luze etzanik zuloan eta tumulu harrietan.

2. 1,55 luze maximum, 1,00 zabal maximum eta 0,10/0,15 lodi medium. Zuloan luze-luze etzanik.

3. 1,05 luze, 0,67 zabal maximum eta 0,27 lodi. Tumuluaren ekialde eta iparralde-ekialdeko ertzean luze-luze ezarririk.

*Norantz begira:* Ezin esan.

*Harri mota:* Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua:* 1988. urtean, uztailaren 2.ean. Datuak hartu uztailaren 4. eta 9. egunetan, eta azaroaren 13. eta 18.etan. Ez dugu ezagutzen indusketarik, baina guztiz apurtua dago.

*Bibliografia:* Ez dugu ezagutzen.

### BIXURDIÑETA I: Trikuharria

*Non dagoen:* *Ultzama* ibarrean, bertako herririk hurbilena *Arraitz* delarik. *Loiketa VIII* trikuharritik maldan behera goazela *Lantz* eta *Ultzamako* mugarriz mugarri, topatzen dugu oroitari hau. Bagadian landatua; eta hemendik mendebalerantz eta iparralde-mendebalerantz zelai bat zabaltzen: zelai eta lepo, mendebaletik 868,5 metroko gaintxoak mugatzen duela (*Ik.* gehiago hurrengo monumentuan). *Lantz-Ultzama* arteko mugarri bat 50 bat metrotara, 100 graduatarantz; «ISILIEKO ZIZA BARRUTIA» hitzekin metalezko oholtxo bat bago batean josirik 20 metrotara 200 graduatarantz. Horren antzeko beste oholtxo batzutan «COTO PRIVADO DE HONGOS» ipini dute ultzamarrek aurtengo udan (1988. urtean). Trikuharria mugatik 20 bat metrotara egon daiteke. Orbela erruz, dena estaltzen duela.

*Goi:* 860 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak:* Lonj. 2° 03' 53'', lat. 43° 01' 20'', *Sunbilla* izeneko mapan.

*Nolakoa den* (5. irudia): Tumuluak 11 bat m. diametruan eta 0,80 goi maximum. Harrizko tumulua, orain arte ezagutzera eman ditugunena bezala; eta harriak trinko. Horren ixkina batean bago haundi bat, eta erdian ganbara bat neurri hauek izan ditzakeena: 0,60 goi, 1,70 luze eta 0,80 zabal. Ganbaran bi lauza zutik, eta lauza puskatu zatiak izan daitezkeen harri gehiago ere bai:

1. 0,50 goi, 0,75 luze eta 0,10/0,15 lodi. Zutik bere tokian.

2. 0,60 goi, 0,55, luze eta 0,05/0,15 lodi. Bere tokian zutik.

*Norantz begira:* 110 graduatarantz begira egon daiteke.

*Harri mota:* Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua:* 1988. urtean, ekainaren 22.ean. Datuak hartu hilabete horren 27.ean eta azaroaren 13.ean. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia:* Ez dugu ezagutzen.

### BIXURDIÑETA II: Trikuharria

*Non dagoen:* Aurrekoa bezala ibar eta herriari dagokionez. *Bixurdiñeta I* izenekoetik 140 bat metrotara 290 graduatarantz. Bagadi gazte batean. Bagoen hostoa gehien bat eroririk dagoelarik, *Ultzama Benta* 355 graduatarantz

ageri da (urriaren 31.a). *Giltzurri-Harrie* 360 graduatarantz dago eta 868,5 metrodu gaina 30°-etarantz, bertan. *Bixurdiñeta I*-i buruzkoak begiratu han.

*Goi*: 860 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak*: Lonj. 2° 03' 46'', lat. 43° 01' 23''. *Sunbilla* izeneko mapan.

*Nolakoa den* (6. irudia): Tumuluaren diamentrua 7 bat metrodu izan daiteke, eta 0,20 (?) goi tumulua bera. Harriak ez daude trinko, goroldioz jantzirik ageri dira eta orbelaren azpitik sortzen. Badago bago gazterik bertan. Ezin esan ganbararen neurriak etab. Bi lauza ikusten dira tumuluaren erdian, honelakoak:

1. (Egoaldekoa) 0,85 m. goi maximum, 1,80 luze eta 0,08 lodi medium. Bi zatitan dago partiturik, biak barrurantz makurturik, baina 2.garren lauza edo harria ukitu gabe: 1. puska 0,45 luze da, eta 2.a 1,35 m. luze. Barrurantz eta alborantz makurturik biak.

2. (Iparraldekoa) 0,55 goi maximum, 0,55 luze maximum eta 0,14 lodi medium. «In situ» egon daiteke, baina koloka egiten du, bultzatzen bazaio indarrarekin.

3. harri bat badago eta bukatu gabeko errotarri bat da: 1,10 m. diamentruan eta 0,13/0,15 lodi. Luze-Luze dago etzanik.

*Norantz begira*: Ekialderantz begiratzen dagoela esan daiteke.

*Harri mota*: Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua*: 1988. urtean, uztailearen 2. egunean ikusi genuen lehenengo, baina ez genuen daturik hartu, trikuharria ote zen dudatan ginelako. Berriz ikusia askotan, horietako batean *Luis Millán* eta *Arantza Lizarralde*-ekin. Datuak hartu urriaren 8.ean eta azaroaren 13. eta 18.etan. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia*: Ez dugu ezagutzen.

## XAFRAN: Trikuharria

*Non dagoen* (7. irudia): *Lantz* hiriko mendietan, *Ultzama* eta *Lantz* arteko hurbilen dagoen mugarria 40 bat metrotara ageri dela, 310 graduatarantz, eta muga bera gertuago dagoelarik trikuharriaren erdiko lauza edo harrietatik. Bagadi eder batean soil txiki bat: 50 m. zabal eta gehiago luze den bago arteko soila. Trikuharriaren ondoan, honen ekialdetik eta hori ukitzen duela, hasten edo bukatzen bagadia. Aipatu soilean ilarrak, otea, belarra eta iratzea ugari, eta megalitoan orbela eta ahabiarik ere bai. Aldapa txiki-txiki batean, ia ordekan.

*Bixurdiñeta* aldetik bide bat ailegatzen da *Xafran* trikuharria dagoen soilera, eta hemendik *Iruetako-Xelai* izeneko lepora doa, 842,10 metrodu lepore. *Xafrango* soiletik *Arraitz* herria 220 graduatarantz ageri da; *Lamizulo* harzuloa (liburuetan *Abauntz* esaten diotena) dagoen mendixka edo muinoa, 240°-etarantz eta *Alkotz* herria, 250°-etarantz.

*Goi*: 840 bat m. itasmailatik.

*Koordinatuak*: Lonj. 2° 03' 48'', lat. 43° 01' 15'', *Sunbilla* izena daraman mapan.

*Nolakoa den* (7. irudia): Tumulua 7 bat metrokoa izan liteke eta 0,30 (?) bat goi. Zuhaitzik ez bertan, baina ugari ilarra, otea, iratzea, ahabia eta orbela, azpian leudekeen harriak estaltzen dituztela. Erdian, neurri hauetakoa izan litekeen ganbara: 0,70 goi, 2,00 luze eta ezin esan zabala. Hiru harri, erdian hauek ere, ganbararen alde bat markatzen:

1. (Egoalde-mendebalekoa) 0,30 goi maximum, 0,50 luze maximum eta 0,05 lodi medium. Zutik, hurrengo biak bezala.

2. (Egoalde-mendebalekoa) 0,55 goi maximum, 0,70 luze maximum eta 0,01 lodi minimum ta 0,12 maximum.

3. (Egoalde-mendebalekoa) 0,70 goi maximum, 1,60 luze maximum eta 0,10/0,25 lodi.

Hiru lauza hauek kontutan harturik, 2,30 m. luze da alde hau.

*Norantz begira*: 125 ala 305 graduetarantz begira.

*Harri monta*: Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua*: 1988. urtean, uztailaren 14. egunean. Datuak hartu uztailaren 16. eta 18. egunetan. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia*: Ez dugu ezagutzen.

## XAFRAN: Tumulua

*Non dagoen*: Ezagutzera eman berria den *Xafran* trikuharriari buruzkoak esan behar dira tumuluaz ere: *Lantz* hiriko mendietan, etab. Trikuharriaren lauzetatik tumuluaren ertzeraino 7 (zazpi) bat m., tumulua egoaldean dagoelarik. Hau ere, bagadia ekialdetik duela eta lehenbiziko edo azkeneko bagoek ukitzen dutela eta beren itzala botatzen. Beraren gainean ilarra da nagusi, iratzerik ez dela sortzen bertan, bai ordea ondo-ondoan. Trikuharria bezala, tumulua ere malda txiki-txiki batean.

*Goi*: 840 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak*: Lonj. 2° 03' 48'', lat. 43° 01' 15'', *Sunbilla* izendun mapan.

*Nolakoan den*: Tumuluak 9,00 m. neurri dezake diametruan, eta 0,80 bat goi maximum da. Erdian badu zulo bat, 2,50 zabal eta 0,50 sakon maximum dena. Lauzarik ez da ageri tumuluan, baina bai bera ukitzen izan den txabola edo antzekoren batean. Hor lau lauza ikus daitezke:

1. (Luze-luze dago) 1,50 luze maximum, 0,85 zabal maximum eta 0,10 lodi medium. Denak daude luze-luze etzanik.

2. 1,30 luze maximum, 0,85 zabal maximum eta 0,10 lodi medium (0,15 zentimetrotaraino). Luze-luze etzanik.

3. 0,90 luze, 0,35 zabal eta 0,08 lodi medium. Luze-luze etzanik.

4. 0,88 luze maximum, 0,60 zabal maximum eta 0,10 lodi medium. Luze-luze etzanik.

*Obarpena*: Tumuluaren ondo eta aldamenean lauza horiek ikusi arren, ez gara ausartzen oroitarri hau trikuharria dela baieztatzera. *Xafran* trikuharria bertan dagoelarik eta lauzarik falta zaiolarik, ezin dugu esan hortik ekarriak ez ziren izan aipatu ditugun 4 harri edo lauza horiek.

*Norantz begira*: Ezin esan.

*Harri mota*: Bertako hareazkoa.

*Noiz aurkitua*: 1988. urtean, uztailaren 14. egunean. *Iruetako-Xelai* alde-

tik gentozela, bagadia orrazten eta arakatzen, trikuharria eta tumulua dau-  
den soilera heltzean, tumulua ikusi genuen lehenbizi eta gero trikuharria. Ez  
dugu ezagutzen indusketarik. Datuak hartu uztailaren 16. eta 18. egunetan  
eta urriaren 31.ean.

*Bibliografia:* Ez dugu ezagutzen.

## SUGESTI: Trikuharria (?)

*Non dagoen:* Lantz hiriko mendietan. Ultzamarrek *Loiketa* (1.139,10 m.)  
eta lanztarrek *Sugesti* esaten dioten tontorretik ekialderantz. Gailur horren  
gainean dagoen eta Lantz ta *Ultzamako* muga seinalatzen duen mugarria ca.  
290 graduetarantz finkaturik; eta egoalderantz goazela, 260 bat m.tara den  
hurrengo mugarria, ca. 250°-etarantz. *Sugesti* menditik erori diren harriek  
harrikara haundi bat, luze eta zabal, egin dute haren ekialde-egoaldetik  
behera doan maldan. Harrikara horretan kokaturik monumentua (?). Baga-  
dia ca. 15 m.tara hasten edo amaitzen, iparralde-ekialdetik, ahabiak erruz  
inguru osoan, eta haritz lodi bat (ca. 3,15 metroko gerriduna) egoaldetik  
ahabien artean. Zenbait errotarri 15/20 metrotara, horietako bik erdiko  
zuloa erdi eginik daukatela.

*Goi:* 1.020 bat m. itsasmailatik.

*Koordinatuak:* Lonj. 2° 04' 55'', lat. 43° 01' 46'', *Sunbilla* deitu mapan.

*Nolakoa den* (8. irudia): Ez dugu tumulurik ikusten. Ganbara (?) 1,10 bat  
goi izan liteke, ca. 2,00 luze eta 0,80/0,90 zabal. Horren zola harriz dago  
betea, aurreko aldeak husturik dagoela ematen duelarik eta hor zeudekeen  
harriak aterarik. Atzeko aldean harriek goiagoko maila bat egiten dute.  
Ganbara delako hori harri hauek mamitzen dute:

1. (Egoalde eta egoalde-mendebalekoa) 1,10 m. goi, 2,15 luze (ageri dena)  
eta 0,60/0,50 lodi. Zutik eta bere tokian dago.

2. (Iparralde eta iparralde-ekialdekoa) 1,40 m. goi, 3,30 luze eta 1,10/1,00  
lodi aurrekaldean. Zutik eta bere tokian.

3. (Estalkia edo) 1,40 luze medium, 1,00 zabal medium eta 0,40 lodi  
medium. Estalkitzat hartzen dugun hau eta 2. lauza edo harritzat eman  
duguna harri bat bakarra dira, lauza honen hegal antzeko bat delarik estal-  
kia. Hegal hau ez da irixten 2. lauzaraino, beraz ez du ganbara osoa estal-  
tzen. Horrengatik, haren eta 1. lauzaren gainean lauza eta harri gehiago ipini  
dituzte barrua ongi gordetzeko. Estalki gainean goroldioa ugari, eta ilar ta  
belar bakanik ere, eta teilatu belarra 'sedum album'.

*Norantz begira:* 110 graduetarantz egon daiteke.

*Harri mota:* Bertako hareazkoa kuartzo puskararen batekin.

*Noiz aurkitua:* 1984. urtean, irailaren 11. ean. Behin baino gehiagotan  
aipatu dugun harrikara arakatzen ari ginela errotarri bila, ikusi genuen  
fenomenu hau. Jakingarria zela iruditu zitzaigun eta bi egun geroago bildu  
genituen datuak, gero berriz datu gehiago hartzen genuela 1988. urtean,  
azaroaren 20.ean. Gure lehenengo fitxan «pseudo-trikuharria» ipini genuen,  
eta holakotzat izan dugu luzaro. Baina gizonak zerbaiteko erabili du:  
aterbe, gerizpe edo artzai-ahuntzai txabola gisa bat izan zitekeen, bertan lo



egiteko eta gordetzeko edo. Gaurko egunean ere jauzika ibiltzen dira ahuntzak alderdi eta inguru hauetan. Baliteke ere errotarri lanetan ari ziren harginen gordelekua izatea.

Lehenbizian, uste izan genuen trikuharri antzera ezarririk azaltzen ziren harri horiek harrikara azpian edo zolan legokeen bertako harkaitzen baten beso edo adarrak izan zitezkeela. Baina gero, 1988. urteko azaroaren 20.ean, garbi ohartu ginen ez zela hori horrela, baizik eta harridia osatzen duten harri pusken gainean eta artean zeudela ezarriak. Ez dugu ezagutzen indusketarik.

*Bibliografia:* Ez dugu ezagutzen.

## Bibliografía

- ALTADILL, Julio (1928), «De re geographico-histórica. Vías y vestigios romanos en Navarra», *Homenaje a C. de Echegaray*, 465-556.
- ALTADILL, Julio (1941), «Las vías romanas en Navarra», *Vida Vasca*, XVIII, 169-176.
- APELLÁNIZ, Juan María (1973), *Corpus de materiales de las culturas prehistóricas con cerámica de la población de cavernas del País Vasco meridional*, Donostia, *Munibe*-ren 1. eranskina.
- BARANDIARÁN, José Miguel de (1946), «Catalogue des Stations Préhistoriques des Pyrénées Basques», *Ikuska*, 24-40.
- BARANDIARÁN, José Miguel de (1953), *El hombre prehistórico en el País Vasco*, Buenos Aires, Ekin Argitaletxea.
- DIPUTACIÓN FORAL DE NAVARRA, 1:5.000 mapak, 90 (6-6), (7-6) eta (7-7).
- ELÓSEGUI IRAZUSTA, Jesús (1953), «Catálogo dolménico del País Vasco», *Pirineos*, 229-378, Zaragoza.
- INSTITUTO GEOGRÁFICO Y CATASTRAL (1953), 1:50.000 neurriko mapa, Sunbilla, 90. zenbakiduna.
- JIMENO JURIO, José María (1971), *Rutas menores a Santiago*. Navarra. Temas de Cultura Popular, CXI.
- JIMENO JURIO, José María (1973), «El mito del camino alto entre Roncesvalles y Saint-Jean-Pied-de-Port», *Príncipe de Viana*, 85-175, Iruñea.
- LÓPEZ SELLÉS, Tomás (1956), «Nuevos dólmenes», *Pyrenaica* 3, Tolosa.
- LÓPEZ SELLÉS, Tomás (1957), «Nuevos hallazgos dolménicos en Navarra», *Munibe*, 105-112, Donostia.
- MALUQUER DE MOTES, Juan (1963), «Notas sobre la cultura megalítica navarra», *Príncipe de Viana*, 93-147. (Cf. 97. or.).
- MEZQUÍRIZ DE CATALÁN, María Angeles (1974), «Notas para el conocimiento de la minería romana en Navarra», *Príncipe de Viana*, 59-67.
- OCHOA DE ALDA, Teodoro (1842), *Diccionario Geográfico-Histórico de Navarra*.
- ONDARRA, Francisco (1975), «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», *Príncipe de Viana*, 403-433. (Cf. *Loiketa* izeneko tumulua 422. or.).
- ONDARRA, Francisco (1976), «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra», *Príncipe de Viana*, 329-363. (Cf. *Harriurdiñeta* 339.ean).
- ONDARRA, Francisco (1982), «Nuevos monumentos megalíticos en Navarra (II)», *Príncipe de Viana*, 7-29. (Cf. *Giltzurriin-Harrie* eta *Koparain* trikuharriak 17. eta hurrengoetan).
- ONDARRA, Francisco (1987), «Los altos mojones de Belate-Zahar», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 365-375. (Berri labur bat ematen da *Ermitako-Lepoan* dauden edestiaurreko oroitarriez).
- PAMPLONA, Germán de (1964), «El Camino de peregrinación jacobea», *Príncipe de Viana*, 213-223.
- PERÉX AGORRETA, María Jesús (1986), *Los vascones*, Iruñea. Institución Príncipe de Viana.
- SANTESTEBAN, Isaac (1980), *Catálogo Espeleológico de Navarra*, Iruñea, Institución Príncipe de Viana.
- TABAR SARRÍAS, María Inés; UNZU URMENTA, Mercedes (1986), «Cuencas Mineras de Epoca Romana», *Trabajos de Arqueología Navarra/5*, 261-278, Iruñea.
- VÁZQUEZ DE PARGA, Luis; LACARRA, José María; URÍA RÍU, Juan (1949), *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, t. II, Madril. Liburu honi buruz, goian -*Los altos mojones de*

*Belate-Zahar*, 375.ean– esandako gauzatzoren bat zuzendu behar dugu. *Belateko Ama Birjina* ondoan omen dago alderdi horietan *Ultzamako* lurretan unerik beitienea eta 810 m. goi omen da. Baina, mapekin fidatzen baldin bagara, 825 m. goi da *Aratxuri* erreka-zubian dagoen puntu hori. *Ermitako-Lepoa*, berriz, 914,5 m. goi dago. Eta galtzara bagadian sartzen denean, *Baztan* alderantz goazela, eta errekatxora ailegatzeara gara *Belate summus portus*-ean: ca. 930 m. Harribakoitz/zutarriak hedatzen diren tartean ca. 925 m. tara igotzen gara. *Lantz/Ultzama* mugetan ca. 905 m. tara heltzen zen, orain –1988. urteko azaroan– *Santio Bidea* adierazteko ipini dituzten erdarazko plastikoei 916 m. tara eramaten badute ere.



Foto 1. Loiketa V trikuharria.



Foto 2. Loiketa VI trikuharria.



Foto 3. Loiketa VI ondoko zorrotzarria.



Foto 4. Loiketa VII trikuharria.



Foto 5. Loiketa VIII trikuharria.



Foto 6. Bixurdiñeta I trikuharria.




Foto 7. Bixurdiñeta I trikuharria.




Foto 8. Xatran trikuharria.





Foto 9. Sugesti trikuharria (?).



Foto 10. Belateko ermita eta borda.










1. irudia. Loiketa V





2. irudia. Loiketa VI



3. irudia. Loiketa VII



4. irudia. Loiketa VIII




5. irudia. Bixurdiñeta I



6. irudia. Bixurdiñeta II



7. irudia. Xafran



8. irudia. Sugesti

